

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko, publizitatea egingo dugu sare sozialetan: instagram-en, youtube-n, tik tok-en... Gainera, pertsonaia publikoei ordainduko diegu haiek gure aplikazioa zabadu dezaten; gehienbat ikasketei buruz hitz egiten dutenei, haien jarraitzaileak gure zerbitzuan interesa eduki dezaketelako. Horrela, gure aplikazioa geroz eta gehiago hedatuko da eta interesatzen zaizkigun bezeroengana iritsiko da.

Bezeroarekiko harremana ez da aurrez-aurrekoa izango normalean, automatizatua izango da aplikazioaren bitartez. Hala ere, klase partikularren kasuan laguntza pertsonala emango dugu eta pantailaren bidez aurrez aurrekoa izango da.

Bezeroak negozio ereduan harpidetzen bidez integratuko dira nagusiki. Gainera, aplikazioari buruzko iritziak eta balorazioak kontuan hartuko ditugu; bezeroen laguntzaz, eskaintzen dugun zerbitzua hobetu ahal izateko. Honen bidez, luzaroan bezeroak mantenduko ditugu, haien eskaerei erantzunak emango dizkiegulako eta aplikazioak etengabe hobekuntzak edukiko dituelako.